



II. «TARTALO GASTEIZ»

MUSIKA ETA SOINU ARTE LEHIAKETA

Oinarriak

2026ean lehen edizioa izango duen lehiaketa honekin zeharkako izaeradun soinu ekoizpena sustatu nahi da, musika eta soinu artea elkartzuz, Vitoria-Gasteizeko “Tartalo. IV. Fantasiatzkoaren Astea Arteetan” jaialdiko barruan.

PARTE-HARTZEA

Lehiaketak, 1985tik 2007ra jaio diren edozein nazionalitate, jatorri eta bizilekuetako autoreen parte-hartzea onartzen du.

Partaide bakoitzak **3 eta 9 minutuko iraupena duen soinu pieza bakar bat** aurkeztu ahal izango du.

Lana aurkeztean, partaide bakoitzak lana bere osotasunean **originala eta argitaragabea** dela aitortzen du, eta ez dela beste lehiaketetan saritua izan epaiaren momenturarte.

Pieza bakoitza parte hartzaile **baten edo gehienez biren** lana izango da, inolaz ere ezin izango da zifra hau gainditu. Garrantzitsua da azpimarratzea, bakarka edo binaka ere, pieza bakarra aurkeztu ahal izango dela.

AURKEZTEKO MODUA

Parte hartzea posta elektronikoko bidez osatuko da, helbide honetan: **concursos@tartalogasteiz.com**, mezuaren gaiari **Musika eta soinu arte lehiaketa** adieraziz.



Partaide bakoitzak mezu bakar bat bidaliko du **atxikitako** hiru artxiborekin: **audioaren artxiboa .WAV** formatuan, plika digitala **PDF formatuan** eta hirugarren **.PDF** artxibo bat, egiletasunaren erreferentziarik gabe, proposamena laburki azaltzen duena bai maila artistikoan, bai soinu-ekoizpenari dagokionez ere, eta proposamena testuinguruan jartzen duten pantaila-argazkiak, irudiak edo bestelako fitxategiak aurkezten dituenak.

Artxibo bakoitza piezaren izenarekin izendatuta egongo da, lehiaketa hitza eta 2025 urtea barne, espazioak dagozkien azpimarrekin ordezkatzuz, gehi “plica digital” hitzak artxibo zehatz horren kasuan. Hurrengo adibide honetan adierazten den moduan:

- Audio artxiboak WAV formatua izango du “La_Cosa_Concurso2025.wav”.
- Plika digitalak PDF formatua izango du:
“Plica_digital_La_Cosa_Concurso2025.pdf”.
- Azalpen testua PDF formatuan, egilearen erreferentziarik gabe:
“La_Cosa_Concurso2025.pdf”.

Plika digitalak partaidearen datu pertsonalak (egiazkoak eta egiaztagarriak) edukiko ditu: izen-abizenak, telefono zenbakia, posta-elektroniko helbidea, posta helbidea eta NAN, pasaporte edo antzeko baten eskaneatze edo argazkia.

Aurkezteko epea **2026ko maiatzaren 16an** amaitzen da. Behin epea amaituta, ez da partaideekin hartu-emanik izango.

BALDINTZA FORMALAK

Audioek **sonoritate** (–10 eta –20 LUFS bitarte) eta **bereizmen** (44 Khz eta 16 bits, baina 48 Khz y 24 bits gomendatzen da) minimo bat izan behar dute.

Gaiek **fantasiazkoan** izan beharko dute jatorria, hala nola, zientzia fikzioan, fantasian, errealismo magikoan, terrorean, gotikoan, thriller apokaliptikoan, distopian, historia alternatiboan, fikzio bitxian, fantawesternean, etab.; eta haien soinu adierazpenak edozein arteetako baliabideetan: zinema, literatura, pintura, komikia, bideo-jokoak edo eskultura besteak beste.

3 eta 9 minutu bitarteko **luzapena** izan behar du, gutxieneko eta gehienezko iraupen bezala.



Konposizioa eta erabilitako baliabideak partaideek aukeratuko dituzte eta obra baloratzerako garaian kontuan hartuko dira. Erabilitako soinu-baliabideak originalak izan behar dute edota autore- eskubiderik gabekoak. Audioak **ez du firmarik izango** eta ez ditu egilearen nortasuna ezagutarazi dezaketen datuak izango.

Baldintza hauen betetzea hasierako egiaztapen fase batean egiaztatuko da: hauek betetzen ez dituzten lanak irakurketa fasearen aurretik baztertuko dira.

EPAIMAHAIA

Onartutako lanak epaimahai espezializatu batek aztertuko ditu, besteak beste, proposamenaren originaltasuna, sormena, estetika, errealizazio teknikoa eta soinu kalitatea kontuan hartuz.

Akademiaren eta fantasiazkoaren arloetan sona duten pertsonen osatutako epaimahai paritario honek libreki ebatziko ditu deliberazio garaian sortu ahal diren intzidentzia guztiak, honako oinarri hauetan aurreikusi ez diren horiek barne.

Haien erabakia behin betikoa izango da, eta sariak hutsik uzteko aukera izango dute.

Irailan zehar, lehiaketaren web orrialdean erakutxiko den dokumentu batean epaimahaiak, bere ustetan, kalitate handiagoa duten lanak nabarmenduko ditu, hauen autoretza jakitera eman gabe. **Finalisten** lista honen barruan egongo dira pieza garaileak.

Epaia, sarituei posta elektronikoz edo telefonoz aldez aurretik jakinaraziko zaiena, **azaroaren 21an** emango da jakitera, "Tartalo". Fantasiazkoaren IV. Astea Arteetan-en programaren barruko ekitaldi batean.

Sari banaketaren ostean, epaia Tartaloren web orrialdean argitaratu eta bertako hedabideetan zabalduko da.

SARIAK

Sarituek ziurtagiri bat eta Vitoria-Gasteiz-ko "Euneiz" Unibertsitateak emandako hurrengoko sariak jasoko dituzte:



- Lehen saria: Unibertsitateko irakasleen mentorizazio artistiko pertsonalizatua, lan irabazlearekin lotutako pieza audiobisual baten sorketa unibertsitateko ikasleekin batera, proiektuaren berrikuspena eta lanaren argitalpena unibertsitatearen komunikazio kanaletan eskainiko dira.
- Bigarren saria: proiektuaren berrikuspena, haren masterizazioa eta lanaren argitalpena unibertsitatearen komunikazio kanaletan eskainiko dira.

Lehiaketaren epaia argitaratu eta gehienez bi urte igaro artean, bi lan sarituak **antolakuntzaren esku** geratuko dira. Honek, lanak oroitzapenezko liburuan argitaratzeaz gain, erakunde kolaboratzaileen bitartekoetan ere erreproduzitu ahal izango ditu, autore direnez apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegileak bere 14. artikuluan gordetzen dizkien eskubide besterezinei kalterik egin gabe.

BERME ETA ERANTZUKIZUNAK

Aurreko guztiarekin loturik, eta lehiaketaren garapenean ohiz kanpoko egoerak ekiditeko asmoz, antolakuntzak honakoaz ohartarazten du:

1. Lehiaketa honetan parte hartzeak bere oinarriak **onartzea** dakar. Hortaz, aurreikusi gabeko intzidentzia guztiak lehiaketaren mesedetan ebatziko ditu antolakuntzak.
2. Lehiaketan lana aurkezten duten pertsonak izango dira hauen edukiaren **arduradun** legalak.
3. Partaide bakoitzaren betebeharra izango da posta elektronikoz aurkeztutako nobeletak jasandako edozein aldaketa (esaterako, beste lehiaketa batean saritua izatea) **jakinaraztea** aurkezteko epea amaitu bitartean.
4. Nobeletan egile diren pertsonak lehiaketaren antolakuntza **salbuestera** derrigortzen dira honek lanen aurkezpen garaian hemen egindako adierazpenen zehaztasun eta egitasun ezaren ondorioz jasan lezaken edozein kalteren aurrean. Adierazpen hauek sariak banatu arte egongo dira indarrean.